

KANALAK

Aplikazio bat izango denez, ez da zaila izango gure zerbitzua bezeroengana helaraztea. Gainera, geroz eta jende gehiagok daki gailu digitalak erabiltzen. Kanalen bitartez lortzen da proiektu bat merkatu-segmentuetara iristea, balio-proposamena helaraziz.

Kanalen artean, komunikazio-kanala erabiliko dugu, gure bezeroekin harremanetan egoteko. Instagarm, Facebook, posta elektronikoa eta webgunea ditugu.

Bezeroarekin harremanen jartzeko erabiliko ditugun bide nagusietariko bat, interneta, gmaila eta sare sozialak izango dira. Batez ere gure aplikazioan izen ematen dutenean, gmailaren bitartez jakinarazi beharko diogu gure bezeroari ordutegi egokia, lekuan egon beharrekoa, non eta beharrezkoak diren datu guztiak.

Gure balio-proposamena, eguneroko bizitzatik ihes egiteko esperientzia emozionante nahiz eta dibertigarriak eskainiko dituen zerbitzua eskaintzea da, aplikazio baten bidez. Horretarako, jarduera desberdinak sortuko ditugu uneoro gure bezeroak gustora egon daitezen eta beraiek eskatutakoa izan dadin.

Bezero-segmentuei banatzeko erabiliko ditugun bide nagusiei dagokionez, berriz, ekintza gehienak, aire librean izango dira eta kontsumitzaileak kotxerik mugitu ez dezaten, autobus zerbitzua eskainiko dugu enpresa ezberdinen bidez. Autobusak jende kopuruaren arabera kontratatuko ditugu eta material egokia eramango dugu, ekintzak modu seguruan egiteko. Izan ere, ez dugu kokaleku finkorik izango eta beraz gure bezeroek aplikazioaren bitartez egin beharko dute eskakizuna. Baina hala eta guztiz ere, etorkizun batean, enpresa ondo badoa ez dugu baztertzen leku fisiko bat irekitzea, hasiera batean Euskal Herri mailan eta bestela Espainia mailan.